



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Gizarte eta Erakunde Harremanetarako Departamentua
Departamento para las Relaciones Sociales e Institucionales

Kirolarte
KIROLETAN
KALITATEA

PROGRAMA PARA LA
MEJORA DE LA
GESTION DEPORTIVA

OHAR TEKNIKOA:

***FUN-BALL* ETA *ERRAKETA* KIROLETARAKO INSTALAZIOEN ERAIKUNTZA.**

***FUN-BALL ETA ERRAKETA
KIROLETARAKO
INSTALAZIOEN ERAIKUNTZA***

SB construcción de instalaciones deportivas y piscinas

Año 32, 4'98, Julio/Agosto

FUN-BALL ETA ERRAKETA KIROLETARAKO INSTALAZIOEN ERAIKUNTZA

1. Historia

70eko hamarkadaren hasiera aldera, Australiako etxean jabe batzuek jokorako eremu txikiak, Badminton pisten tamainakoak gutxi gora-behera, eraiki zituzten euren lorategietan. Helburua familia giroan eta atari zabalean erraketa kirolak egitea zen. Hainbat pilota eta erraketa motarekin jolasten zen, belar eta asfalto gainean gehienetan. Apropos arau errazak ezarri ziren. Jokoak mahai-tenis handitua, tenis murriztua eta badminton zituen oinarri.

70eko hamarkadaren amaieran, kirol hau esparru pribatutik instalazio publikoetara pasa zen. Hareazko edo materia sintetikoazko pisten gainean jokalekuak markatzen dira, badminton pista baten tamainakoak gutxi gora-behera. H itxurako ohizko pista eta sakeko marra, mugaketakoaren atzean kokatua, ezarrita geratzen dira. Adiskidantza eta ondo pasatzea dira kirol hau egitean lehentasuna duten helburuak.

80ko hamarkadaren hasieran, Australiako enpresa batek kirol hau Europako azoka batean aurkeztu zuen lehenengoz. Mugimendu dinamikoek, arau errazak izateak eta jokatzeko hasteko egoera fisiko berezirik behar ez izanak kirol honekiko interesa piztu zuen berehala.

80ko hamarkadaren amaiera bitartean ehundaka jokaleku zabalduta ziren Frantzia zehar, gehienak asfalto gaineko banda itsasgorrez markatuak. Herri kirola zen eta izaten jarraitzen duen arren, 1989ko urriaren 5 eta 7aren artean Frantziako lehenengo txapelketa burutu zen Parisko Aquaboulevard delakoan. Arauzko lau pistetan, 32 partehartzaile trebe azken faserako sailkatu zen, partidu interesgarriak jokatu.

1994. urtean *fun-balleko* lehenengo Europar Federakuntza (fbEF) sortu zen, egoitza Suitzako Bielen kokatuz. *Fun-ballerako* arautegi amankomuna ezarri zen, jokalekuaren neurri zehatzak finkatu eta kirolaren helburu eta asmoak azaldu ziren.

Fun-balla Alemaniako telebistan lehenengo aldiz aurkeztuko da, eta honen europar hiriburua Paristik Munichera lerratuko. FbEF-arekin elkarlanean, *fun-ball* enpresak kirol honen hedapena zuzentzen du. *Fun-balleko* lehen pistak eraikitzen dira eta, Westfaliako Kleinenberg herrian, Alemaniako lehenengo *fun-balleko* kluba sortzen da.

1996. urtean *fun-balla* hedatzen hasiko da. Milioi bat gora zaletu hurbilduko da *fun-balla* erakusketa kirol deneko 15 ekitaldietara. Italian eta Herbeheretan ere *fun-balleko* lehenengo instalazioak eraikiko dira.

1998. urtean, *fun-balla* Alemania, Italia eta Herbeheretako 38 azoka eta ekitalditan aurkeztu da. Ezin konta ahala pista finko eraikitzen da Europan (ikus 1 argazkia). Big Gym kirol parkean bakarrik, Erromaren erdian, eta lau hilabete soiletan, 40.000 pertsonak baino gehiagok *fun-ballean* jardungo du gogotsu. Belgikan eta Espainian ere eskaintzen da *fun-ballean* aritzeko aukera. Lehenengo ikastaroak antolatzen dira.

1998. urteko otsailean, *fun-balleko* Alemaniako federakuntza sortu berriak (DfbV) kirol honetako animatzaileentzat bi eguneko ikastaroa eratu du. Geroxeago 30 irakasleri *fun-ballaren* berri emango zaio. Ekainean unibertsitate batean pista bat eraikiko da lehenengo aldiz.

Aldi berean, *fun-balla* gero eta nazioartekoago bihurtuz doa. Estonia, Turkia, Israel, Suitza eta Grezian lehenengo pistak eraikitzen dira. Italian *fun-ball* tour 98 delakoa hasiko da, honen amaieran Italiako txapelkunak izendatuko direlarik. Udaran Italiako *fun-ball* federakuntza sortzen da.

Lehiaketako pista kopuruaren bilakaerari dagokionean, ikus 1 irudia.

2. Fun-ballaren egoera

Erraketa kirolen merkatua egoera txar samarrean dago Alemanian. Squasha atzera egiten ari da. Mahai-tenisa geldialdian dago eta tenisean ere Becker-Graf *booma* iraungitzen ari den seinaleak ageri dira.

Badmintonak bakarrik eusten dio goiari. Oro har, erraketako kirola gaurkotasan handirik gabeko kirol gisa ikusten da.

Fun-balleko pista kopurua.
(fbEF-k homologatutako lehiaketa pistak).

Europar guztira
Horien artean, Alemanian

Aldia	Europar guztira	Horietatik, Alemanian
1988-92	12	0
1993ko amaiera arte	19	0
1994ko amaiera arte	27	1
1995ko amaiera arte	41	5
1996ko amaiera arte	66	20
1997ko amaiera arte	93	35
1998ko erdialdera arte	121	44

1. irudia. *Fun-ballaren* bilakaera Alemanian eta Europan.

Munduan *fun-balleko* 1.700 bat pista daude. Gehienak asfaltozkoak dira edo harea gainean markatuak. Jokorako baldintza hobereak, nahiz estalkipeko pistetan nahiz atari zabalekoetan, *fun-ball Court* izeneko zoruak eskaintzen ditu. *Fun-balleko* Europar Federakuntzak tokian tokiko eta nazioarteko txapelketetarako agintzen duena da. Egun, mota honetako 130 bat pista finko instalatu da Europan.

Beste aldeko muturrean inline-skateboard eta hiriko zein hondartzako kirol modalitateak bezalako joerak, arrakastatsuak oso, bermatzen dira. Eta *fun-ballak* hauekiko lokarri gisa jokatzeko du.

Fun-balla ez da eguzkitarako betaurrekoz eta samba erritmoan jokatzeko den eta modan dagoen kirola. Baina kirol kolorista da, ikasten erraza, eta ikusle gartsuek, burua alde batetik bestera mugituz eserita geratu gabe, gogotsu partehartzen dute.

Fun-ballak jende mota oro erakartzen du, haurretatik hasi eta, yuppiak ere tartean, “Lacoste” belaunaldiraino helduz. Gainera, ekonomikoki edonoren eskuera dago. *Fun-balleko* erraketa batek eta lau pilotek 150 marko balio dute egun. Bakoitzak nahi duen janzkera hauta dezake, eta *fun-ball* pista ordubeterako alokatzea Badmintonekoa alokatzea baino merkeagoa da oraindik.

3. Jokorearen nondik norakoak


Fun-balla jokoa, arauak eta tantoen zenbaketa mahai-tenisaren antzekoak dituen erraketa kirola da, baina jokaleku handiagoa du. Pilota jokoetarako nolabaiteko zaletasun, egoera fisiko eta lehiaketarekiko interesa nahikoa dira pistan zeharo gustora ibiltzeko. Indarra baino ez darabilenak jokora erabat egokitu beharko du. Lehiaketa mailan, *fun-balla* arintasun, joko-taktika eta sasoi dezentea eskatzen duen kirola da.

Sakean, jokalaria sakeko marraren atzean jartzen da. Pilota jaurtitzean, honek ez du sorbaldaren altuera gainditzetik izango, eta puntu bakoitzeko bi sake ditu. Lehenengo sakea 1 eremutik egin beharko da, eta bigarren saialdia, berriz, 2 eremutik. Pilota beste aldean zeharka kokatutako gainazalera jaurti beharko da (2 irudiko gainazal argia).

Jaurtiketa serie bakoitzean, pilota airez eraman ahal izango da pilotak pistako alde bakoitzean bitan bote egiten duenean. 20 puntura iristen den lehenak seta irabazten du. Partidu bat aurrera ateratzeko hiru set irabazi behar dira.

Fun-balleko Europar Federakuntza, zeinak Suitzako alderdi frankofonoan baitu egoitza (Biel),

txapelketetarako arautegi bat eta kirol hau aisialdiko jarduera gisa egiteko beste bat prestatzen ari da.



2 irudia: *fun-ballaren* jokalekua.

1: Alboko marra, bikoitzak; Alboko marra, bakuna; sakeko eremua; 4: Kanpoko eremua; 5: 1+2 eremuak. Sakeko marra.

4. *Fun-ballerako* materiala

Pilota sarearen gaitetik jaurtitzen da, 48 eta 52 cm. bitarteko eta 11 kg-ko tentsioa duen erraketaren bitartez. Pisu dezentea eta goialdean karga arina (gutxienez 330 gramo) izaki, hasberriak jaurtitzeko mugimendu labur samarra egin behar du, mahai-tenisean bezala, honek esperientziarik eta entrenatzailearik gabeko pertsonen jarduna errazten duelarik.

Pilotak ez du presiorik, 37 eta 39 gramo bitarteko pisua du eta bote egitean balaztatu egin behar du. Honela, kontrolpean dago eta jokoaren erritmoari eusten zaio. Bere tamaina eta belus-itxurako azala tenisko pilotenen antzekoak dira. Urre-kolorekoa edo laranja argikoa izan behar du. Pilota baten kalitatea berau erabili ahala areagotuz doa, eta horrexegatik txapelketetako partiduetan zehar ez dira aldatuko.


5. Pista: ezaugarri orokorrak

Pistak jokalekua (2 irudian seinalatua) eta horren inguruko *kanpo* eremu bat ditu. Jokalekua marra zuriek mugatuta dago. Oro har, banako modalitatean (2 jokalaria) eta bikoteka (4 jokalaria) joki daitezke.

Zabalean jokalekua sare batek banatzen du. Sarea gutxienez 7 metroko tartea gorde behar duten bi zutoini lotuko zaio. Sarearen altuera 850 mm-koa da ertzeko zutoinetan eta 820 mm-koa sarearen erdian.

Jokalekuaren tamaina 13,40x5,18 metrokoa da banako modalitatean, eta 6,10 metroko zabalerokoa bikoteka, Badmintoneko pistak duen tamaina berbera. 1 eta bi sakeko marra eta sarearen parean, jokaleku barruan, dauden *kanpo* eremu gehigarriak (Incuts) joku honen bereizgarri dira.

Alboko *kanpo* eremuak 1,50 metro izan beharko ditu gutxienez, eta atzeko *kanpo* eremuak, berriz, 2 metro. Beraz, tamaina osoa, kanpo eremuak barne, 18x9 metro ingurukoa da. Marra guztiek 40 mm-ko zabalera dute. Neurri zehatzak 3 irudian adierazten dira.



Marra guztiek 40 mm-ko zabalera dute.
3 irudia: *Fun-balleko* jokalekuaren tamaina.
1. Sarea.

FbEF-k kirol honetarako laua, gehiegi leundu gabekoa den eta pilotak bote egokia egiten duen edozein gainazal erabil daitekeela finkatzen du. Lautasuna bi metrotik behin, norabide orotan, neurtu behar da, 4 mm-tik gorakoak ez diren aldeak onartuko direlarik.

Beraz, asfalto eta lur xehearen gainean ere joka daiteke. Hala ere, gihar, zurda edo giltzadurak gehiegi ez kargatzearren, oinarri biguna hautatu behar da.

FbEF-k txapelketetarako indargetze eta leuntasunari dagozkien betekizunak konplitzen eta, ondorioz, batik bat jokoaren azkartasuna eta pilotaren botea hobetzen dituen estalkia gomendatzen du.

6. “*Fun-ball Court*” pista

Fun-balleko Alemaniar Federakuntzak dituen aukera esperimental gehienak *Fun-ball Court* izeneko zoruari loturikoak dira, eta honi buruz -adibide gisa- sakonduko dugu. Alemanian egindako kirol gainazal honek behar diren arauak betetzen ditu. Bere gaineko geruza feldro sintetikoak da, eta pilota balazta dadin eragiten du. Horrez gain, urte osoan zehar erabil daiteke, nahiz estalkipeko pabilioietan nahiz atari zabalean.

Estalkia 18 pieza inguruk osatzen du, eta instalazio talde batek 8 bat ordu behar du berau muntatu eta finkatzeko. Gainera, itsaspena berau edozein unetan lekualdatu ahal izateko moduan egin daiteke. Mugikortasun hau abantaila handia da, egun txapelketak ekitaldi handien barnean burutzen direla kontuan hartzen badugu.

Materialaren sendotasunak (metro karratuak 4 kilogramo pisatzen du) berau hainbat kirol modalitatetan erabiltzea ahalbidetzen du. Zuloak izanik, eta atari zabalean erabiltzean, ura agudo zurgatzen du, denbora gutxian berriro erabiltzeko moduan delarik. Zurgagailuaz garbi daiteke eta,

oso zikina badago, presio handiko garbigailuz.

7. Aurretiko lanak

Fun-ball Court delakoa instalatzeko betekizuna oinarri lau eta gogorra eta, atari zabalean bada, izozteak jasaten dituena (hormigoia, zoladura, tartana, oholtzakiko estalkia, adreilu aglomeratua), da. Aukeran, delako oinarriak iragazkorra behar du izan. Potxingorik behintzat ez da osatu behar.

Normalean, pista 1,5 metroko altuera duen sare edo hesi batez mugatzen da. Eskuarki pistak ez dira bereizten. Pabilioiaren altuera 4 metrokoa izango da gutxienez, eta airearen zirkulazioa, kirol dinamiko batek eskatzen duena. Argiztapenari dagokionean, ez dago betekizun berezirik. Alabaina, kanpoaldean, pista iparraldera begira egongo da.

8. Kokapen aukerak

Orokorki, *fun-balla* kirola informalki eta aisialdiko jarduera gisa egiten den lekuetan izaki, berau ezartzeko aukera asko dago. Orain dela bi urte *fun-ball* pistak nagusiki kanpin, turismo-gune eta gazte-aterpetxeetan jartzen ziren bitartean, egun *fun-balla* eskaintzen duen gero eta Fitness eta erraketa kirolen zentro, kirol hotel eta ur-parke gehiago dago.

Instalazio bakoitzeko pisten kopurua ere areagotuz doa. Tennis pistak lau *fun-ball* pista bihurtzen hasiak dira. 1998. urteko udazkenean *fun-baller*a bakarrik emandako lehenengo pabilioia irekiko da.

Fun-balla honako kirol hauekin bereziki ondo moldatzen da:

- ✓ aisialdiko beste kirol batzuk (beach, Pit Pat kasu); honen adibideak, besteak beste, Bad Münden, Albershausen edo Wormsen ditugu;
- ✓ Fitness; adibidez, Nördlingen, Berlin edo München, besteak beste;
- ✓ ur-parkeak; adibidez, Fiderstadt, Xanten edo Bisingenen;
- ✓ beste erraketa kirol batzuk; adibidez, Arnsberg, Bamberg, Halle edo Limburgen, besteak beste.

Fun-ball eta Beach, *fun-ball* eta Fitness edo *fun-ball* eta Badmintonaren arteko konbinaketak bereziki azpimarratzeko modukoak dira. Zailtasun multzoak antzekoak dira: ariketa fisikoa eta kirolarekiko grina lehenesten dute.

Fun-balla lehiaketa kirol gisa zenbateraino bermatuko den denborak konponduko duen auzia da. Nolanahi ere, *fun-ball*aren etorkizuna gaur geroz jarduera profesionala bilakatzeko dituen aukerei lotu behar zaie.

9. Harremanetan jartzeko helbidea

Deutscher *fun-ball* Verband (DfbV)

Saarlandstraße 13^a, D-85630 Neukeferich, Tel. +49/89/462 037 50

Fax. +49/89/462 037 51